



264. zenbakia

• Uztaila 2026 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Peio Iturralde – Denboraren esku urdinak
(Susa, 2026)



poema bat idaztea beste
poema guztiak ez idaztea
da, esaldi bat idaztea beste
esaldi guztiak isilaraztea,
hitz bat jartzea
beste hitz guztiak ukatzea,
ez besterik
zenbat eta
gehiago idatzi hainbat gehiago
dira desagerrarazi dituzunak



Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

komunikazioa



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@ametza.eus

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Basaburuko Ahaztuak, Ametza Kultur Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Esan Erran irratiko kolaboratzaileen afaria Jauntsarasko pasaderetan. Argazkia, Jule Goñi

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira uztailearen 8an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Las Potxolas*

08

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Ekimenak. *Axolagabe antzerki tailerra*

16

Ekimenak. *BasaBIotza*

20

Aspaldiko kontuak. *Miguel Maria Iriarte Ansorena*

24

Zer irakurri. *Udako zutabe bat*

26

Ardo freskoa. *Monakotik Alemaniara II*

28

Kronika. *Gurserako bidai*



30

Iritzia. *Uraren kudeaketa eta baratzak*

32

Kolaborazioa. *Cederna Garalur*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Maiatza*

35

Ametzaren Txokoa. *Bazkide berriak*



Iruñeko Hotel El Rey Noble jatetxe ezaguna zuzendu zuten bederatzi ahizpa ultzamarrak

Xabier Irujo historialariak eta Alex Mugica sukaldariak 'Las Potxolas. Memoria, género y cocina' liburua argitaratu dute Altaffaylla Fundazioarekin. Ultzamatik Iruñera joan ziren bederatzi ahizpen historia jasotzen du lanak, baita jatetxe ospetsuan prestatzen zituzten zenbait errezeta ere, Ultzamako jakiak Iruñera eta mundura zabaldu baitzituzten Gerendiain Larraioz ahizpek. Haien historia, Xabier Irujorekin eta Potxolekin lanean aritu zen Pilar Ariztegi alkoztarrarekin izandako elkarrizketak ekarriko ditugu orriotara

Pakita, Petra, Josefina, Floren, Fermina, Rosarito, Rosalia, Conchita eta Cristina Gerendiain Larraiotz. Horiek ziren Las Potxolas gisan ezagun egin ziren bederatzi ahizpa ultzamarrak. Iraizozko Martinsenea etxeko Gervasio Gerendiain zuten aita, eta Larraintzarko Arotzeneako Juana Larraiotz, ama. Bederatzi ahizpez gain, bi anaia ere bazituzten Potxolek: Martintxo, apaiz egin zena eta oso gazte hil zena, eta Jose Mari, medikua.

Gurasoek Gerendiaingo Ostatura errentan hartu eta hainbat urtez kudeatu zuten, eta han bizi izan ziren hogeituz urtez, 1910 ingurutik 1930 ingurura arte. Han jaio ziren seme-alaba guztiak. Baina, alaba

gazteenak, Cristinak, urtebete eskas zuela, Iruñean Casa Cuevas izeneko ostatuaren eskualdatze deialdian parte hartu eta hara mugitu zen familia osoa. "Garai hartako 60.000 pezeta ordaindu behar izan zituzten traspasoagatik, pentsa, hori gaur egungo 350.000 inguru lirateke, sekulako apostua egin zuten", azpimarratu du Xabier Irujok. Lindatxikia eta Komediak kaleen artean zegoen ostatua, eta goiko gelan lotarako tokiak zuten, eta behean, jantokia. "50 bat lagunei ostatu emateko tokia zuten, eta behean sukalde txiki bat besterik ez zegoen, garaian ez zen menurik eta horrelakorik ematen, eguneko jaki bat eta denak mahai batean", dio historialariak.

Zorigaitzaren aurrean, ahizpatsuna eta indarra

Baina, Iruñera joan eta gutxira, 1932an, Potxolen aita hil zen tifus infekzio batek jota, eta urtebete beranduago, 1933ko maiatzean, ama, minbiziagatik. "Lau ahizpa bakarrik ziren adin nagusikoak, Petra eta Pakita bikiak 22 urte zituzten, Josefina 20, eta Florenek 19. Beste guztiak adingabeak ziren, pentsa zein egoera latzean gelditu ziren", dio Irujok. Garaiko sistemak eta elizak ahizpak bereizi eta etxe desberdinetara eraman nahi zituen zerbitzari gisa, baina haiek ez zuten horrelakorik onartu. "Amak, hil baino lehen, esana zien elkarrekin mantentzeko eta borrokatzeko, segitzeko Casa Cuevasekin". Eta horixe egin zuten: ostatuaren ardura hartzea erabaki zuten, elkarrekin segitzeko.

"Garai hartan, familia batzordeak erabakitzen zuen horrelako kasuetan zer egin adingabeekin, eta Gervasioren anaia, Juan Miguel Gerendiain, zen familia batzordeko ordezkaria. Honek ahizpei esan zien bi edo hiru hilabetetan ostatuko zor guztiak ez bazituzten kitzatzen, dena bertan behera utzi eta banandu egingen zituela", azaldu du Irujok. Saiatuta ere, azkenean ez zuten dena kitzatzea lortu, okindegian 432 pezetako zorra gelditu baitzitzairen... baina ez zuten etsi, eta dokumentua faltsifikatu eta horrela lortu zuten





ostatuarekin segitzea. Eta, Juan Miguel osaba familia batzordetik kentzea ere lortu zuten.

1935 ingururako ostatuak fama eta sona hartua zuen, eta jendea ordurako Gerendiain ahizpei 'Las Potxolas' deitzen hasia zen. "Historia berezia zuten, oso ederrak ziren, oso langileak, eta jendea haiei buruz hitz egiten hasi zen", dio. Horrela, Petrari Donostiako Casa Nicolasa jatetxe famatura joateko aukera suertatu zitzaion, ikastera, eta zuzenean Nicolasa Praderarekin aritzera. "Garaiko sukaldaririk ospetsuenetakoa zen emakume hau, 'La cocina de Nicolasa' liburua argitaratua zuen, eta Euskal Herrian eta Europa mailan ezaguna zen. Han ikasi zuen Petrak platerak nola aurkeztu, mahaiak nola jarri, postreak nola egin..."

Europako jatetxeetako eredu a segituz, menuak osatzen ikasi zuen, eta Iruñera bueltan joan zenean, haien ostatuan ere eredu hori lantzen hasi ziren. Hori bai, Ultzamako eta Iruñako ohiko platerak menuan sartuz: haragia, tripakiak, barazkiak, sagarrarekin egindako jakiak, ajoarrieroa, tripotxa, arkumea txilindroi eran... Ultzamako gaztanbera ezaguna ere eskaintzen zuten, eta eskualdeko Goshua enpresaren

jatorriak ere badu Potxolekin harremanik: 60. hamarkada hasieran Ultzamako Saralegi familiari jatetxerako gaztanberak enkarguz eskatzen hasi ziren ahizpak, eta horrela asmatu zituzten egun guttiz zabalduak dauden buztinezko potoak.

Sarasateko Hostal El Rey Noble jatetxea

1938an Sarasate pasealekura tokiz aldatzea eta apostu berri bat egitea erabaki zuten Potxolek, Sarasate pasealekuan jatetxe berria erositik. Felix Huarte enpresariaren laguntza izan zuten, eta hor eginen zuten bizitza osoa, hil arte. Hor iritsi ziren maila gorenera Potxolak, eta hor jasoko zituzten mundu mailan ezagunak diren pertsonaia garrantzitsu asko. Hostal El Rey Noble izena zuen jatetxe berriak, Iruñean jatetxe bezala, menuekin eta mahai propioekin funtzionatuko zuen lehene-tarikoa, lehena ez bazen. "1940tik 1960ra handitze prozesua izan zuten, eta pertsonaia ospetsuak jaso zituzten bertan: 1953an Hemingway iritsi zen, eta gerora etorriko ziren beste asko". Ava Gardner eta Charlton Heston aktoreak, Maradona futbolaria, Julio Iglesias, Bertin Osborne, Norma Dubal eta antzeko pertsonaia, Mola eta Sanjurjo ge-

“ **Bederatzi ahizpak elkarrekin mantendu ziren bizitza osoan, eta bat bera ere ez zen inoiz ezkondu** ”

neralak, errege Borboiak eta Belgikakoak, elizako kardinal ospetsuak, Ortega y Gasset filosofoa, Gregorio Marañon medikua... esparru eta alor guztietako jende boteretsua pasatu zen jatetxetik.

Bederatzi ahizpak bertan bizi eta bertan egiten zuten lan, eta rolak oso argi zituzten banatuak beraien artean: Petra, Pakita eta Rosarito sukaldeaz arduratzen ziren; Josefina harremanak eta kudeaketa egiten zituen, baina gero sukalderra ere pasatu zen; Floren kontuez, inbertsioez eta erosketez arduratzen zen; eta gazteenek, Rosaliak, Ferminak, Cristinak eta Conchitak, zerbitzari gisa egiten zuten lan. "Amak esandako gauzak kontuan hartuta dekalogo moduko bat osatu zuten Potxolek, adierazten zuena elkarrekin egon behar zutela, ostatu euren etxea zela, ez zirela haien artean borrokatuko, jende guztia berdin tratatuko zutela...", azaldu du Irujok. Ahizpetako bat ere ez zen inoiz ezkondu, eta lanerako hartzen zituzten langile guztiak emakumezkoak ziren.

2000. urtean itxi zituen atea Hostal El Rey jatetxeak, 'Las Potxolas' izenez ezagunagoa zenak. Ordurako, bederatzi ahizpetatik hiru besterik ez ziren gelditzen bizirik, Rosalia, Josefina eta Conchita, eta batere zaratarik egin gabe, atean notatxo bat jarrita amaitu zuten ibilbidea: 'Itxita'. 2017ko uztailean zendu zen ahizpetako azkena, Conchita, baina beraien historia betirako gelditu da Iruñeko Sarasate pasealekuan.



Las Potxolas, sukaldean lanean



▲ Hotel El Rey Nobleko jantokia

Ekintza eta ekarpen soziala

Xabier Irujo historialariak nabarmentzen duenez, jatetxearen egunerokoarekin batera, Gerendiain ahizpek alor sozialean ere beren ekarpena egiten zuten, askotan izkutuan edo itzalean bazen ere. Esaterako, gerra zibila eta gero, Mola generala eta beste hainbat maiz joaten ziren Casa Cuevasera, eta Potxolek haien elkarrizketak entzunez, Iruñeko espetxeko presoen egoeraren berri izaten zuten. "Sare moduko bat osatu zuten presondegietara jana bidaltzeko", gogoratu du.

Gerora ere, egoera latzak bizi zituzten emakumezko askori eman zieten babesa, diruz lagunduz edo jatetxean lana eta etxea eskainiz. "Senarrik gabe haurdun zeuden emakumeak, alkoholarekin edo bestelako dependentziekin arazoak zituztenak, genero biolentzia jasaten zutenak... jende asko laguntzen zuten Potxolek", adierazi du Irujok.

Pilar Ariztegi

Alkozko herritarra, Las Potxolasen hamar urtez lanean aritua

"Las Potxolasen lanean aritu nintzenean plantilla ia osoa ultzamarra zen"

Noiz aritu zinen Potxolekin lanean, eta nola iritsi zinen beraingana?

Ezagutzen nuen Hostal El Rey Noble jatetxean lanean aritua zen jendea, eta niri han lanean ari zen Alkozko lagun batek esan zidan, ea joan nahi nuen. 1962an hasi nintzen, eta hamar bat urte egin nituen han lanean, 1972an ezkondu nintzen arte. Zerbitzari lanetan aritu nintzen, eta gogoan dut Ultzamako jende askok egiten zuela lan han, Arraizkoak, Ilarregikoak, Alkozkoak... plantilla ia osoa ultzamarra zen.

Eta nola gogoratzen dituzu urte horiek?

Oroitzapen oso onak ditut, denak emakumezkoak ginen eta gure artean oso ongi moldatzen ginen. Potxolez gain, bederatzi edo hamar lagun aritzen ginen lanean, eta denak han bizi ginen, bi pisutan,

ahizpak alde batean eta langileok bestean. Ez genuen inoiz arazorik izan, tira, laneko eztabaida txiki-riren bat agian noizbait, baina ezer handirik ez.

Jendeari laguntzeko grina ere bazuten, ezta? Sumatu zenuten hori?

Bai, oso jende ona zen. Josefinak, adibidez, egoera latzak zituzten haurrak jasotzeko etxe bat sortu zuen Erriberan, San Nicolaseko eliza asko laguntzen zuten, gaez lanean aritzen ziren gauzainak ere bai. Bai, oso eskuzabalak ziren. Egia da diru asko mugitzen zutela eta aberastu zirela, baina ez zioten inoiz lan egiteari utzi. Pentsa, bizi zitezkeen lasai asko Donostian, edo beste edonon... baina ez zuten nahi izan, lana zen haien bizia.



▲ Hamar urtez aritu zen lanean Pilar Ariztegi alkoztarra Las Potxolasen



Xabier Irujo

Historialaria eta Las Potxolas liburuaren egilea

“Zentzu txarrean 'herrikotzat' hartzen ziren platerak hiriko jatetxe ospetsura eraman zituzten Potxolek”

Noiz eta nola sortu zitzaizuen Las Potxolas buruz liburua argitaratzea?

Aspaldiko ideia da liburuarena. Izebak nituen Potxolak, Jose Mari Gerendiain anaia medikua nire aitaren arrebarekin ezkondu baitzen. Hori da lotura, gertutik ezagutu nituen Gerendiain ahizpak bizitza osoan, jatetxera joaten ginen askotan, eta urtero, abenduaren 31 han ospatzen genuen, familia osoa biltzen ginen. 2000. urtean jatetxea itxi zutenean bizirik gelditzen ziren hiruekin iraganaz hizketan hasi nintzen pixkanaka, galderak egiten. Rosalia hil zenean pena handia hartu nuen, emakume oso berezia baitzen, eta Josefina eta Conchitarekin serioago hitz egiten hasi nintzen, 2010



▲ Xabier Irujo historialariak hurbiletik ezagutu zituen Gerendiain ahizpak

inguruan edo. Hasieran ez zuten liburua egiterik nahi, baina urtebete inguru pasata, baiezkoa eman zuten. 2011tik 2019 inguru arte egin nituen elkarrizketak haiekin, maiz joaten nintzen. Eta, errezeptarioa nik egin ezin nuenez, Alex Mugicarekin hitz egitea pentsatu genuen, harreman ona baitzuten berarekin ere. Urte eta erdiz Potxolen errezetak prestatzen aritzen, eta haiei dastatzeko ematen zien, errezeta zehatza lortu arte, banan bana. 15 urteko lana izan da, pentsa!

Zer nabarmenduko zenuke Potxolen historiatik?

Nik esanen nuke haien irakaspenerik handiena izan zela garai hartan emakumezkoa izatea zer zen eta zertara iritsi zitezkeen, baina hori bai, gauzak lortzeko zenbat borrokatu eta zenbat lan egin beharra zuten, gizonezkoek baino askoz gehiago. Bestetik, uste dut egin zuten lan soziala ere itzela izan zela, emakumezkoek garai hartan zituzten arazoekin lagunduz, momenturik zailenean presoak lagunduz... eta, lanari dagokionez, uste dut lehen aldiz mahaigaineratu zutela zentzu txarrean 'herrikotzat' hartzen ziren platerak, gaztanbera eta horrelakoak, herrietan ja-

ten zirenak, hiri bateko jatetxean ere jan zitezkeela.

Zer nolako harrera ari da izaten liburua?

Liburua argitaratzea opari bat izan da niretzat, omenaldi moduko bat delako, eta erantzun oso ona izaten ari da. Lehen edizioa amaitu da honezkerok, eta hurrengo astean aterako da bigarrena. Bai, interesatzen du lanak. Liburua egiteko argazki bila Ultzama aldean ere ibili ginen, jendea galdezka etortzen zitzaigun, eta Las Potxolasi buruz liburua egiten ari ginela kontatzean hizketan jartzen ziren gurekin, ezagutu zituen jendeak maite zituen.



Canfranc-era txangoa eta Otsolara ibilaldia

Canfranc estaziora hilabete honetan egin dugun txangoari buruz azalpenak emango dizkizuegu kronika honetan, eta hilabete honetako mendi buelta eta ibilaldia ere kontatuko dizkizuegu

Canfranc-eko irteeran, betiko geltokietan geldialdiak egin eta jendea jasota Huesca aldera abiatu ginen. Bidean beste geldialditxo bat egin genuen mokadu bat hartzeko eta 11:30erako Canfrancera iritsi ginen. Han, hiru gidariek geltokia erakutsi ziguten eta bere izaeraren zergatia azaldu.

Canfranceko Nazioarteko Estazioa 1928an inauguratu zen Aragoiko Pirinioetan, eta Espainia eta Frantzia lotzeko trenbide-proiektu handi gisa sortu zen. Hala ere, bere historiak dioenez, isolamendu geografikoak, gatazka belikoeak eta abandonu goiztiar batek "mendietako Titanic" deiturarekin ezagutzea ekarri zuen.

1928ko uztailaren 18an, Espainiako errege Alfontso XIII.ak eta Frantziako presidente Gaston Doumerguek Somporteko geltokia eta tunela inauguratu zituzten ofizialki, zazpi hamarkada baino gehiago iraun zuen ingeniari-tza-ahalegin handia burutuz. Eraikin nagusia estilo modernista eta klasiko frantseseko jau-



Itzaletik, tren geltokiko historia entzuten, argazki zaharrak ikusiz ▲

regi-arkitekturarekin diseinatu zen (240 metro luze), Espainia moderno eta europar baten irudia proiektatzeko, bere garaiko Europako bigarren geltokirik handiena bihurtuz.

Bigarren Mundu Gerran (1942 – 1944), geltokia mugako pasabide estrategiko bihurtu zen, Alemania naziaren aduanak kontrolatuta, Frantziaren okupazioaren ondoren. Bere garrantzi historikoa bere paper sekretu bikoitzean datza. Alde batetik, Hitlerren erregimenak lapurtutako urrea, tonaka bidali zituen Suitzatik Espainiara eta Portugalera wolframioaren truke (funtsezko minerala tanke alemaniarrentzat). Bestalde, Canfranceko aduanak, estazioaren erdigunean zegoenak, ihesbide klandestino gisa balio izan zuen, erresistentzia lokalari eta espioitza sareei esker, milaka judu eta pilotu aliatu nazien jazarpenetik salbatzeko.





Gerra ondoren erabilera gutxitzen hasia zenean, 1970eko martxoaren 27an, Frantziako merkantzia-tren batek errailetik atera eta Frantziako aldean zegoen l'Estanguet zubia suntsitu zuen, nazioarteko trafikoa erabat geldituz. Nahiz istripuak hildakorik ez utzi, aitzakia tekniko ezin hobea bihurtu zen Frantziako tren-konpainiak (SNCF) eta Frantziako gobernuak ekonomikoki defizitariotzat jotzen zuten linea bertan behera uzteko. Horrek espainiar estazioaren isolamendua eragin zuen, gainbehera, desegite eta abandonu garai luze bati hasiera emanez, "estazio fantasmaren" mitoa elikatuz.

Eskaera, manifestazio eta protesta askoren ondorez, 2023ko urtarrilean, bidaiarientzako eraikin historikoak atek ireki zituen berriz, Canfranc Estación 5 izarreko hotelean, Royal Hideaway Hotelera. Mugarri hau Aragoiko industria- eta arkitektura-ondarearen berreskurapenean oinarritzen da.



Berritzeak 1928ko fatxada historikoa eta atari monumentalak zaindu zituen, eta inguruko ekonomia berpizten duen turismo iraunkorreko proiektu batean integratu zuten. Gainera, bidaiarien geltoki berri bat eraiki zen, Frantziarekiko nazioarteko trenbidea berriro irekitzeko gizartearen aldarrikapen historikoa bizirik mantentzeko.

Historia hauek eta beste kontatu zizkiguten eta liburua gomendatu zizuten.

Canfranc historiak entzun ondoren, Jakara jaitsi ginen bazkaltzera bertako jatetxe batera. Nahiz bero egiten zuen kanpoan, barneko freskuraz gozatu genuen bazkariarekin batera.

Bazkal ondoren, Jaca Herria ikusteko aukera izan genuen, bakoitzak bere kabuz, eta 18:30etan autobusak hartu eta etxera bidean jarri ginen. Gauza bitxia ikustearen sentsazioarekin itzuli ginen, Espainiako tren geltoki handiena, non eta Pirinioetako herri txiki batean, alajaina!

Ekaineko ibilaldiak Arrarats eta inguruko herrietako mendietan barrena izan dira. Egun beroa zetorrenez goizxeago mugitu ginen eta Otso-lako ura edateko tarte ere hartu genuen. Ireber eta Beigañe tontorrrak zapalduz besteak beste, mendi ibilaldi polita egin genuen, gehiena pago tartean, itzaletik ibiltzea atseginago zegoelakoz.

Hurrengoan mendi ibilaldirik ez dugu izango bain Lizason egiten dugun urteroko "Kalderetea" aipatuko dizuegu beste kontuen artean. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.





Erabilera anitzeko lokal berria Arraitz-Orkinen

Arraitz-Orkingo erabilera anitzeko lokal berriaren inaugurazio ofiziala egin dute ekainaren 19an. Herriko behar sozial, kultural nahiz komunitarioei erantzuteko asmoz sortu dute gune berria, bizikidetzak sustatzeko eta herritar guztiendako jarduerak garatzeko asmoz. Horregatik, herritar guztiei irekitako ekitaldia egin zuten, espazio berria erakusteko eta aurkezteko. Askok hurbildu ziren. Erakundeetako ordezkariekin eta proiektuaren garapenean parte hartu duten pertsonekin ere partekatu dute ekitaldia.

Arraitz-Orkingo kontzejutik jakinarazi dutenez, Proiektua Partaidetzazko Tokiko Garapen Estrategien bidez emandako diru-laguntzari esker gauzatu da. Estrategia horiek Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren (PEPAC) 2023-2027 programaren barruan daude, LEADER 2023-2027 ekimenaren bidez. Bestetik, diru-laguntzaren eskaera egiterakoan Cederna Garalur landa garapen elkartearen laguntza ere jaso du Kontzejuak.



Anari, Jauntsaratsen

Uztailaren 18an, 20:00etan, zuzenekoan izanen da musikari azkoitiarra Txokolateroren atzeko oihanean.

1997an kaleratu zuen bere lehenengo bakarreko diskoa eta geroztik bederatzi lan argitaratu ditu. Azkena, Giza Zarata, 2024an. Idazle bikaina ere, bere ahots bereziarekin, euskal folk-rockeko ezinbesteko bat da.

Basaburuko Udaleko Euskara eta Kultura arloaren apustua izan da. Joan zen urtean estreinatutako udako programarekin jarraitzeko. Orduan, Hertzainak talde mitikoko eta bakarreko ibilbidea ere jorratu duen Gari etorri zen Txokolatero atzeko oihanera eta kalean kontzertu akustikoa eskaini zuen. Herritar asko hurbildu zen izugarritzko arrakasta izan zuen emanaldira.

Aurten, arrakasta errepikatu nahi dute eta euskal musikako beste handi bat etorriko da: Anari. Esan bezala, uztailaren 18an, Jauntsaratsen arituko da zuzenekoan, 20:00etan. Gosea duenarentzat, gainera, Jan Talo Food Truck-a ere izanen da talo bereziak saltzeko. Eta Garagardo artisauak ere izanen dira Amaiur Garagardoak-en eskutik.





Xulateg, Ultzamaldeko Kuadrillen Eguneko desafioan txapelduna, bigarren urtez

Ekainaren 13an izan da aurten Ultzamaldeko Kuadrillen Eguna. Laugarren edizioan urtero antolatzen duten kuadrillen arteko Herri Kirol desafioa izan da ekimen nagusia. Eta, iaz bezala, Xulapain, Atetz eta Ultzamako herritarrek biltzen dituen taldea izan da txapelduna. 19' 08" 47ko denboran osatu dituzte lanak. Atzetik, lehenengo bi urteetako txapeldunak izan dituzte, Etxikarte taldekoak: 20' 34"-ko denborarekin bigarrenak izan dira.

Osotara, 10 taldek parte hartu dute eta 11 kide talde bakoitzean eta egin behar izan zituzten lanak ere aurreko urtekoak izan ziren: lokotxak, txingak, korrika, aizkora, trontza eta ingudea, besteak beste.

Sailkapena, osorik:

1. Xulateg: 19' 08" 47
2. Etxikarte: 20' 34" 00
3. Txokoracing: 21' 29" 32
4. Mokordis: 21' 31" 32
5. Kilikis: 21' 46" 03
6. Morkotx: 21' 57" 32
7. Los Zatak: 21' 57" 46
8. Artozakis: 23' 01" 13
9. Errezetak: 23' 16" 34
10. Txutxumutxuak: 23' 20" 78



Batzuek oso-oso alde gutxi izan dute eta desafioa birtartean Ultzamako Frontoia jendez gainezka egon da harmailetan, urtero herritar ugari hurbiltzen baita giro ederrean herri kirolaz eta egunaz disfrutatzen. On-

doren, bazkaria izan da eta musika arratsaldean eta iluntzean Tukutuku txarangarekin, Los Tajudos del Norte taldearekin eta DJ Bakorekin.



Uztailaren 4an hasi da Gartzarongo Pilota Txapelketa

Hemen da berriz eskualdeko pilotaren hitzordurik garrantzitsuenetako bat, Gartzarongo Pilota Txapelketa. XLI. edizioa izanen da aurtengoa, eta 252 bikotek eman dute izena. Urtero bezala, Gartzarongo Toki Alai elkar-teak antolatu du kirol ekimena, eta hainbat kategoriatan jokatu dira partidak:

- **Umeetan** (2014-2015 urteetan jaiotakoak), 36 bikote
- **Haurretan** (2012-2013 urteetan jaiotakoak), 52 bikote

- **Gaztetxoetan** (2010-2011 urteetan jaiotakoak), 54 bikote
- **Gazteetan** (2008-2009 urteetan jaiotakoak), 42 bikote
- **Nesketan** (2009-2013 urteen artean jaiotakoak), 15 bikote
- **Helduetan** (2008 baino lehen jaiotakoek), 52 bikote

Uztailaren 4an hasi eta urriaren 31 arte luzatuko da aurtengo txapelketa, eta beti bezala, asteburuetan jokatu dira partidak, normalki, Gartzarongo pilotalekuan.



Amaitu da Lanzko frontenis txapelketa

Ohitura bihurtzen ari den bezala ekainean jokatzen dira finalak eta aurten ekainaren 13an izan ziren, Lanzko Euskararen Egunarekin batera. Lanzko Frontenis Txapelketa mistoa da eta helduen eta haurren kategorian jokatu egiten da. Helduen kategoriak baditu txapeldunak eta txapeldunordeak baina haurren txapelketa oraindik jokatzen ari da ale honen itxiera datan.

Helduen taldean Itxaso Sarasibar eta Imanol Perez izan ziren txapeldunak 22 eta 14 irabazi baitzieten Leire Oskozek eta Xabier Juverak osatutako bikoteari. Argazkian txapeldunorde bat falta zaiguela konturatuko zineten, Leire Oskoz, San Juan bezpera gauan eman zieten dominak baina Oskoz ez zegoen.

Aurten txapelketa antolatu duten laugarren urtea da eta urtero bezala arrakasta izaten du herritarren artean. 17 bikote aritu dira helduen kategorian eta beste sei umeen mailan.



KULTUR

2026 ekainak 20 | irailak 21 | **UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA**

IRA

LARUNB.

5

19.00

OLAGÜE

Anue Ibarreko U. pilotalekua

GANDEIA

Gandeia Dantzan



EUSKARA
PROGRAMA
OSOA

Uzt 1
ABU 31

BERTIZKO JAURRERIA
ERAKUSKETA

**DIBUJOS MEDICINA
SENDAGAIK**

MYRIAM CAMEROS SIERRA

Larraitzarko antzerki tailerrak 25 urte bete ditu

Hazia udako antzerki ikastaro motz bat izan zen. Karmentxu Gartzes Dukar, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langileak galdetuta, herritar batzuek antzerkiarekiko interesa adierazi zuten. Ikastaroak izugarritzko arrakasta izan zuen, eta, horrela, ikasturte osora luzatzea erabaki zen. Axolagabe antzerki taldean bihurtu zen eta 25 urte egin ditu

2.000. urteko abuztuan egin zen antzerki tekniken ikastaro txiki hori eta dozena bat herritarrek eman zuten izena, gehienak Iraizozkoak. Geroztik, ez da gelditu eta hau 25. ikasturtea da. Hasiera hasieratik Isa Aisa Sola izan dute zuzendari: "Hemen 21 antzezlan prestatu ditugu, 40 pertsona pasa dira taldetik eta 6.000 ikusle baino gehiago bildu ditugu".

Arrakasta, bi aldeetan

Lehenengo urtetik ikusi zen antzerkiak baduela arrakasta Ultzamaldean. Isa Aisa Sola: "Hamar edo hamabi izanen ginen eta mankomunitatean ensaiatzen genuen (Gizarte Zerbitzuetan). Antzezlan bat ere egin nahi zuten eta hainbeste jende apuntatu zen antzezlanak ez zituela pertsonaia nahikorik. Zerbait asmatu behar izan nuen eta beste antzezlan batekin uz-tartu nuen, bi antzezlan nahastu".

Hasiera horretan sartu zen gaur egun ere taldean dagoen Marisol Irigoyen

Villabona, Iraizozkoa. Orduan Fran anaiarekin eman zuen izena eta go-goan du publikoan ere izan zuten arrakasta: "2001. urtean izan zen lehenengo emanaldia, Larraitzarko ikastetxeko jantokian. Urte askotan egin genuen han, zentro zibikoa egin zen arte. Izugarri harritu gintuen zenbat jende etorri zen. Nagusiki familia-koak eta lepotik hartuta ekartzen genuen jendea, 'ikusle gatibuak' (irriak). Baina esan behar dugu lehenengo aldi horretatik urtero etorri nahi dutela".

Hain zuzen, joan den urtetik bi egunetan eta lau emanalditan ematen dute antzezlan, jendea sarrerarik gabe gelditzen delako. Isa Aisa: "Errieta egiten ziguten jende asko kanpoan gelditzen zelako". Eider Arbilla, Iraizozko taldekide oiha: "Eta sarrerak bi segundutan bukatzen dira, berandu iristen bazara sarrerarik gabe gelditzen zara". Rakel Elkano Bizkai, Ziaurritzkoa, ere izan zen taldean: "Zalantzarik gabe jende gehien mugitzen

duen jarduera kulturala da".

25 urte

Esan dugu, mende laurdena bete du taldeak, eta hori ez da makala. Ospatzeko, hobekien dakitena egin dute, antzeztu, eta antzezlana bereziago egitea, posible bada. Hamar urte bete zituzten bezala, hasierako taldeko hainbat herritarrek parte hartu dute ekainaren 19an eta 20an egin duten ikasturte amaierako antzezlanean: "Hamar urte bete genituenean lehenengo urteko antzezlana bera egin genuen berriz eta hasierako kide batzuk egon ziren baina beste pertsonaia baten azalean. Oso dibertigarria izan zen".

Apustu bat galtzea irabaztea da

Mamen Rodríguez Gilen kasua ere berezia da. Kanpotik eskualdera ezkondua, Gerendiainen bizi da eta apustu baten ondorioz apuntatu zen. Hamarkada eginen du hemendik gutxira: "Hau bederatzigarren urtea izanen da. Senarrari esan nion bera tailla klaseetara apuntatzen bazen ni antzerkira apuntatuko nintzela, bera apuntatu zen eta ni ez, eta orduan berak apuntatu ninduen (irriak) eta hemen jarraitzen dut! Poz pozik!".

Rakel Elkano Bizkai:
Zalantzarik gabe
jende gehien
mugitzen duen
jarduera
kulturala da



Axolagabekoak aurtengo antzezlanean, oholtzara atera baino lehen



“ Irantzu Perez Ziaurritz: Zazpi urtetan egin dudan gauzarik onena izan da ”

Isa Aisa zuzendariak kalkulatu duenez, 40 bat pertsona pasa dira 25 urte hauetan. Marisol Irigoyen beteranoarekin batera hasi zen Txaro García Gallegos edo Suarbeko Jesus Mari Altuna Villanueva. Izan ere, garai ezberdinetan apuntatuak, lehenago edo geroago alde egin dutenak, duela urte batzuk utzi eta berriro itzuli direnak. Denetatik dago taldean. Baina denok bat egiten dute: giro ederra dago. Irantzu Perez Ziaurritzek, Aizarozkoa, hirugarren urtea du: “Niri antzerkia egiteko esaten zidaten beti. Auzako harategian egiten dut lan eta Elenak esan zidan taldea zegoela Larrainzarren. Zazpi urtetan egin dudan gauzarik onena izan da”. Horregatik, edonori gomendatzen dio: “Polita, entretengarria eta dibertigarria delako, baina batez ere jendearengatik. Talde oso polita osatzen dugu, bakoitza bere harrikadarekin eta denak desberdinak, baina oso giro ona dugu”.

Ikusten ez diren lanak

Axolagaben hainbeste ikusten ez diren baina taldeari asko axola dietenak ere badira. Horietako bat da Maria José Cia Arce, oroitarazlea (erdaraz, apuntadora). Entzun dugun figura da oroitarazlea, baina beharbada ez

dugu ongi ezagutzen gaur egun gal-tzen ari delako. Ciak kentzen badio ere garrantzi handia du: “Beno, ez da lan handia... jendea falta denean, entseguarekin jarraitzeko, nik egiten dut falta denaren papera, antzezlanaz lantzen jarraitu ahal izateko. Batzuetan bi pertsonaia egin behar ditut bi kide falta direlako, baina ezer gutxi gehiago, hori da nire lan guztia”.

2021ean hasi zen Axolagaben. Antzerkia egiten zuen Iruñean, burua askatzeko: “Baina horrek ez zuen funtzionatu eta nire alabek esan zidaten Larrainzarren talde bat bazegoela eta zergatik ez ote nintzen apuntatzen. Honen alderdi txarra da gero oholtzara atera behar zarela, eta esertokiak hutsik ikusita ere, pentsatu nuen, hona ausartak bakarrik igo daitezke, ni banoa behera (irriak). Nik ezin dut, publikoaren aurrean egitea gehiegi da niretzako. Baina antzerkia asko gustatzen zait, eta taldean biltzea, talde honetan, asko. Irri pilo bat egiten dut eta ratotxo hau behintzat egoten naiz”.

Herria, laguntzeko prest

Zuzendaria, aktoreak, oroitarazlea eta publikoa aipatu ditugu, baina antzerki honek baditu ezinbestekoak diren elementu gehiago. Izan ere, jantziak egiteko, aktoreak makillatzeko edo atrezorako -oholtzan behar diren materialak egiteko-, hainbat eta hainbat herritar egon da atzean. Marisol Irigoyen: “Behin hilkutxa bat behar genuen eta nik zurgina den lagun bat dut. Hark esan zidan, hori nire aita-



▲ Eider Arbilla kide oihala *Los intereses creados* obra klasikoan. Jantziak Gloria Irigoyenek egin zituen

rendako lan ederra da”. Larrainzarren zurgindegiko Florentino Larrayozek egin zuen, orduan erretiratua. Irigoyenen familiak ere asko lagundu izan du, izebak eta, bereziki, amak, Gloria Villabona, Isa Aisa zuzendariak kontatu digun bezala: “*Los intereses creados* obra klasikoan sekulako jantziak egin zizkigun, ezin sinistekoak! Nik gortinen telak eramaten nizkion eta liburu bat ere berak jantziak kopiatzeko. Nik esaten nion “Gloria, zuk egin nahi duzun bezala” eta berak, ezetz eta ezetz, nik esateko nolakoak nahi nituen. Jantzitegi proba bat ere pasa behar izan zuten pertsonaia guztiek (irriak)”. Ezin dituzte denak aipatu, baina dekoratuak margotu dizkiotenenak, makillatzera etorri direnak, asko dituzte gogoan.

Astearteetan 19:30ean biltzen da taldea, urritik ekainera bitartean. Herritarrek izena ematera animatzen dituzte, batez ere, gizonak, beti faltan izan baitituzte.



▲ Popurrí izan da aurtengo obra. Ezker ezkerrean, arrosaz, Marisol Irigoyen; erdian, leopardoz, Irantzu Perez

Egungo kideak: Amaia Elizondo Barberena, Marijose Cia Arce, Irantzu Pérez Ziaurritz, Mamen Rodríguez Gil, Josetxo Nieto García, Pili Larrayoz Vidaurreta, Fran Villabona Irigoyen, Marisol Villabona Irigoyen, Elena Arregui Gonzalo, Alfonso García Echandi, Isabel Etxandi Serrano eta Isa Aisa Sola, zuzendaria.



Gaztaina bizibide bihurtzeko proiektu aitzindaria Basaburuan

Nafarroan gaztainedi zaharrak eta bertako barietateak berreskuratzeko egiten ari diren lanketaz hitz egin dugu aldizkari honetan behin baino gehiagotan, eta egitasmo horren baitan kokatzen da Itsasoko Laura Martinenaren eta Garazi Merceroren BasaBIOtza proiektua ere. Gaztainarekin eta beste zenbait fruitu lehorrekin pateak ekoizten dituzte Itsason, eta aitzindari dira Nafarroan gaztaina oinarri duen proiektua garatzen

Duela hilabete gutxi hasi dira ama-alaba basaburuarrak inguruko azoketan parte hartzen, eta pate eskaintza zabala dute honezkero. "Hamar pate mota desberdinekin hasi gara: gaztaina, hurra eta ar-bendola pate puruak, horien arteko nahasketak, kakao eta panelarekin egindako pate gozoak...". Momen-

“
Dibertsifikatzeko eta inguruan laborantza ere bultzatzeko gogo aspalditik genuen”

tuz, lau pate gozo, hiru gazi eta hiru puru dituzte katalogoan. Eta, kontatu dutenez, interes eta kuriositate handia piztu dute produktuek azoketan, eta jende asko ari zaie hurbiltzen pateak probatzera eta galdetzera.

Baina, egin dezagun atzera, pateak eta azokak direlako prozesuaren bukaera. Itsasoko Muizko etxean egin dugu Laura Martinena eta Garazi Mercerorekin hitzordua, etxea eta lantoki aldi berean duten tokian. Etxearen ondoko zelaian dituzte hurrizak landatuta, guztira hiru hektarea inguru. "Duela lauzpabost urte landatu genituen zuhaitzok, ematen hasi dira honezkero baina poliki doa oraindik. Dena den, guretzat ere hobe horrela, pixkanaka hasteko, jasotzeko

modu desberdinak probatzeko...", diote. Ureztatze sistema jartzeko asmorik ez zuten hasieran, baina landaketa egin ondoko udan lehorteak izan zen, eta euri-ura jasotzeko baltsa egitea erabaki zuten. Orain, hiruzpalau ureztatze egiten dituzte udan, zuhaitzak laguntzeko. Gaztainaren kasuan, gaztainadun pare bat dituzte lgoan alokatuak. Batean garbiketa eta txukunketa egiten aritu dira azken urteetan, eta bestean, alertzeak kendu eta berez heldu ziren gaztainondoak txertatu eta berriak landatu dituzte.

Gaztainaren berreskuratze ekonomia bat sortzera

Proiektuaren jatorriaz galdetu diegu, izan ere, BasaBIOtza etikedadun pateak berriki ateratzen diren arren, prozesua duela zenbait urte hasi zen, proiektuaren hirugarren zutabe nagusi den Xabi Azpiroz gaztainen inguruko lanketan hasi zenean. "Xabi basozaina da, beraz, basogintzarekin harremana bagenuen aspalditik, eta etxe ondoko soroan ganadua sartzen zuten abeltzainek, baina bagenuen gogo dibertsifikatzeko eta inguru honetan laborantza ere bultzatzeko", azaldu du Martinenak. Hasiera batean gaztainak zituzten buruan, baina Martinenak hurra ere oso gustuko zuen, eta gure inguruan hurrik ekoizten ez dela ikusita, hurrizak sartzea erabaki zuten. "Berueten gaztandegi bat eraman nuen bere garaian, eta jogurtak ekoizten genituen, horietako bat hu-



Laura Martinena eta Garazi Mercerero, **Eraldaketa** gunean



Harrigarria da zenbat jende hurbiltzen zaigun azoketan kuriositatez, galdetzera eta pateak probatzera



rraduna. Kontua da arazoak izaten genituela hurra lortzeko, eta horregatik pentsatu genuen hurra ekoiztea ere interesgarria zela”, gaineratu du. Duela 6-7 urte landatu zituzten zuhaitzak etxe ondoan.

Hasiera batean, ordea, asmo berezirik gabe egin zuten landaketa, ez zuten burutan ekoizpen proiektu bat martxan jartzea eta horretatik bizitzeko apostua egitea. Baina Garazi alabak proiektuan parte hartzeko interesa azaldu zienean, pauso bat aurrera eman eta ekoizpena eta eraldaketa bizibide bihurtzeko erabakia hartu zuten. “Gaztainondoan lanketarekin hasi zirenean eta etxean hurrizak landatu zituztenean ni txikia nintzen eta ez nuen horretan pentsatu, baina



▲ hurrizten soroan

gerora, nagusiagoa nintzela, eraldaketaz hitz egiten hasi ziren, interesa piztu zitzaidan eta saiatzea erabakitu nuen”, azaldu du Mercerok.

Eskala txikian eta lurra errespetatuz

Hasieratik argi zuten BasaBIOtzako kideek eredu ekologikoan ekoizti nahi zutela, baina zigitatik harago doa haien filosofia. “Ekologikoan egiten dugu lan, interbentzio ahalik eta txikienarekin eta lurraren eta naturaren zikloak errespetatuz”, dio Martinenak. Horrez gain, pateak egiteko erabiltzen dituzten gainontzeko osagaiak eskuratzeko ere irizpide antzekoak darabiltzate: ahalik eta gertuen egina, ekoizpen proiektu txiki eta artisauena, ekologikoa... “Adibidez, arbendolak eta oliba olioia Nafarroako Bardea etxaldeari hartzen dizkiogu, txitxirio eta dilistak, Hazialdeko projektuko Erripodasko Fran, Alberto eta Mireni, eta ekilore olioia Burgosko ekoizpen txiki bati”, diote. Kakao eta panela azukrerik ez dago gurean, baina horiek ere ekoizpen ekologikotik eta bidezko merkataritzako kanaletatik eskuratzen dituzte.

Proiektuaren hastapenetan daude oraindik Itsasoko bizilagunak, eta eraldaketarako eraikin handi baten eraikuntzan ari dira. Bitartean, etxeko obratzaile txikian egiten dituzte pateak. Uzta biltzetik pateak egiterainoko prozesua nola den azaldu digute: “Hurren kasuan, irailean uzta jaso eta lehortzen uzten ditugu. Ondoren, beharraren arabera, Garazi arduratzen da fruituei azala kentzeaz eta xigortzeaz, eta ni, berriz, eraldaketak egiteaz”, dio Martinenak.

Eraldaketa gunean dituzte egurrarekin funtzionatzen duen labea, fruituak txikitzeko makina, krema egiteko harritzko birringailua, indukziozko plaka, irabiagailua eta autoklabea. “Hurrak eta arbendolak birrintzean bere olio askatzen dute, eta krema moduan gelditzen da birrindutakoa. Indukzio plakan dilistak, txitxirioak eta gaztainak egosten ditugu, eta ondoren, nahi ditugun nahasketak irabiagailuarekin egiten ditugu. Ontziratzea eskuz

egiten dugu, hori da denbora gehien hartzen diguna”, diote. Behin pateak poteetan sartuta, autoklabearen bidez esterilizatzen dituzte. Gaztainaren kasuan, bildutako guztia zuritu eta izozkailuan kontserbatzen dute, behar den momentuan atera eta erabiltzeko.

Gaztainaren kultura eta errezetarioa (bir)sortzen

Sei bat azoketan parte hartu dute ama-alabek azken hilabeteotan, eta jendearen partetik jasotzen ari diren erantzunarekin oso pozik daude. “Oso polita ari da izaten, eta harrigarria da ikustea zenbat jende hurbiltzen den galdetzera, kuriositatez”, diote. Sortu dituzten hamar pateak dastatzeko jartzen dituzte postuan, eta zaporearekin harrituta gelditzen dira asko, batez ere pate puruekin eta gaziekin. “Jende askok galdetzen du azoketan, baina honek ez al du haragirik? Azkenean, pimentoia eta beste espezia batzuk erabiltzen ditugu, eta zaporearekin harrituta gelditzen dira”, diote.

Bestalde, gaztainak testura eta kremositate handia ematen diete pateei. “Zaporea segituan galtzen du gaztainak beste zaporeekin nahasita, baina beste propietate organoleptiko asko ditu, kremositate oso ona, gozo puntu hori... ikusezin zoragarri horietako bat da gaztaina”, gaineratu dute. Historikoki, erreta edo egosita jan izan dira gaztainak batik bat gurean, baina beste herrialde batzuetan saltsetan, eltzekarietan eta beste errezeta askotan erabili izan da gaztaina, eta horiek ekartzeko eta zabaltzeko saiakeran ari dira BasaBIOtzako kideak. “Gaztainaren kultura, sukaldatzeko moduak eta errezetak zabaltzeko itxaropena dugu, osagai aparta baita gauza askotarako”, gehitu dute. Sare sozialen bidez eta haien difusio kanalean errezeta ideiak ematen hasi dira, jendeari laguntzeko asmoz. “Izan ere, azoketan asko galdetzen digute, batez ere pate puruekin, zertarako eta nola erabili daitezkeen”. Azoketatik ari dira produktua saltzen batik bat, baina inguruko dendetan eta Ekoalderen bidez ere ari dira mugitzen.



Orein Snturben, bazkaria prestatzen



Arañozko eguna



Adin guztietako herritarrak biltzen dira Arañozen, hauek Zenoizko herritarrak dira



Ultzamaldekoko Kuadrillen Eguna. Desafioan parte hartu zuten talde guztiak



Ekainaren 18an amaitu zen Esan Erran irratiako denboraldia. Egun Ero irratsaioak saio berezia egin zuen Pasaderetatik



Esan Erran irratiako Egun Ero irratsaioako kolaboratzaileak Pasaderetatik egindako zuzeneko berezia entzuten



Salsa eta batxatako ikasleak azken egunean





Miguel Maria Iriarte,

“Itsasoko maistrua”

Beti herria eta Elizaren zerbitzura

Miguel Mari, Itsason jaio zen eta bertan bizi da. Basaburuan egin du bere ibilbide profesional gehiena eta Itsasokoa denez, “Itsasoko maistrue” deitu izan zaio, bere izenaz gain. Urte franko badu jubilatuta zela eta aspaldian merezi zuen Pulunpen elkarrizketa bat, bizitza oparoa izan baitu.

Itsasoko **Arameneko** semea (**Aamenia** esaten dugu guk) 1944an jaio zen eta herriko eskolan ibili ondoren, 13 urtetan Iruñeko Seminaria joan zen eta bertan burutu zituen ikasketak luzeak.

Etxea eta eskola

Miguel Mari, gehientsuenak bezala, nekazal etxeko semea

Bai, hala ginen. Aita, Bautista Iriarte Elizalde, **Antxotonekoa** zen eta ama, Josefa Antonia Antsorena Begiristain, etxeko alaba (Bautixte eta Joxepa) Aita buru argikoa eta amaz, zer esan? Langile porrokatua eta fina zela.

Lau senide izan gara: Angel, ni, Maria Juana eta Victoriano.

Aipatu beharko nuke, aita-ama, ni oso ume nintzela, arduratu zirela nire etorkizunaz; eta bigarrena izanik, zerbait ikasi beharko nuela. Garai haietan ikasketak Seminarioan edo fraide komentuetan egiten ziren, eta Seminarioako nahia edo txertatu zidaten.

Dena dela, lehenik herriko eskolan ibiliko zinen

Bai, bai, lehenbiziko herriko eskolan ibili nintzen. Bi maistra ditut gogoan, Antonia Larraiotz, Eltzaburukoa, eta Maria Angeles Gonzalo, Oteitza-Antsoingoa. Seminarioan sartzeko lehen aldian ez nintzen pasatu ahal izan, dirudienez Iruñeko eta beste zenbait herritakoak hobekixeago prestatuak edo. Bigarren urtean bai, aise pasatu nuen eta 13 urtetan joan nintzen. Hori 1958. urtea zen.

Hasieratik Seminarioko bizitzara egoki moldatu nintzen. Pozik nintzen.

Seminariokoaldi luzea -Seminarioko ikasketak-

Seminarioko ikasketei buruz, esadazu zerbait.

Lehen zikloari Gramatika zeritzan eta 5 urtez egiten zen. Asignatura franko baziren, baina latina ikastea zen inportanteena. Lehen 3 urteetan hizketan ikasi, laugarrenean itzultzen, latinetik gaztelerara.

(Pro Milone liburua aipatzen du eta zertaz zen ere azaldu dit. Eskemak egiten, arrazoiak, testuak irudikatzen eta abar ikasten zen)

Bosgarren kurtsoan *elocuentia* ikasi genuen, hizketan ongi aritzen:

Greziara ere ikasi genuen. Hori laugarren eta bosgarrenean egiten zen.

Latina eta greziara oso ongi ikasi nituen. Eta niretzat erreza ere bazela esanen nizuke, latinak euskarak bezala deklinabidea ere baduelako. Eta greziara izugarri gustatzen zitzaidan. *(Irakaslea Crisostomo Eserverri Hualde, xaharra, eta Muskitzen bizitutakoa zen)*

Bigarren zikloa (Filosofia)



▲ Miguel Mari, maistrua, sasoko



Bigarren zikloko asignaturak edo irakasgaiak, honako hauek ziren: Logika, Ontologia, Kritika, Kosmologia, Filosofiaren historia...

Zein asignatura zenuen gustuko?

Egia esan, asignatura guziak. Diplomaren bat edo beste ere badut. Kosmologia eta latina, adibidez.

Euskara zerbait ere eman izan zenuten?

Euskara ere ematen ziguten, bai, 6. 7. eta 8. kurtsoan. 6.ean erdaldun eta euskaldunendako, denei berdin, hitzen esanahia, Nafarroako toponimia...Eta zazpigarrenean eta zortzigarrenean euskaldunoi euskal gramatika ematen ziguten; eta irakurtzen eta idazten ikasi ere bai. Irakaslea, Blas Fagoaga famatua izan genuen.

Eta kirola?

Kirola ez. Beste batzuk futbola eta pilotan ziren onak. Ni ez, nahiago izaten nuen ikasi eta irakurri.

Eta bigarren zikloa bukatu eta Teologiara, azkeneko ziklora, pasatuko zinen, ez da hala?

Lau urteko aldia. Ziklo honetara apez izan nahi zutenak pasatzen

ziren, baina asmo horretan ziren guziei galdeketa zorrotz bat egiten zieten, inkesta bat eta elkarrizketa.

Nire kasuan, 21 urte nituenean, urtebeteko itxaronaldia gomendatu zidaten, eta lana ere topatu zidaten. Etxabakoitzen jarri nintzen bizitzen eta hurbilean zen zerrategi batean aritu nintzen peon lanetan.

(Miguel Mari 7. urtea egiten hasi zenean Azkoiengo apez bat zen Seminarioko Zuzendari (Rector), serioa eta ona, tradizionalista esaten den horietakoa, eta 8. Ikasturtea hastera hori kendu eta Don Jesus Lezaun sartu zen, oso aurrerakoa. Aldaketa handiak ekarriko zituen Lezaunek. Eta honen iritzi jarri behar ziren irizpideek ere izan zuten noski eragina Miguel Mariren urte bateko itxaronaldia erabakitzerakoan)

Urtea lanean eman eta apez izateko erabaki eta itzuli zinen Seminaria Teologia ikastera

Hala. Ikasten segitzea erabaki nuen eta itzuli egin nintzen. Teologia zikloa lau urtekoa zen. Baina krisi latza sortu zen.

Eliza krisian sartu zen, hemen eta Mendebalde guzian

Hortaz, krisi bete-betean sartu zinen berriz ere Seminarioan.

Halaxe izan zen. Hezitzaileak, irakasleak, ikasleak, denak borrokan, batzuk besteen kontra. Pentsa nola zegoen giroa, 1967-1968 kurtsoari hasiera ere ez zitzaion bere egunean eman.

Hitzez hitz, honako hau aipatu dit Don Miguelek: *Itzuli eta hiru urtez iraun nuen giro hartan, bitartean apezgai gehienek alde egin zuten bakoitza bere aldera. 1970. urtean nik ere erabakiren bat hartu behar eta beste ikaskide batzuekin magisteritza ikasketak egiten hasi nintzen.*

Krisiaren zergatia. Hau ere hitzez hitz, Miguel Marik idatzi bezala jarri nahi izan dut:

Vatikano II. Kontzilioak aldaketa asko onartu zituen eta horiek aurrera eramaten apez askori gehiegizkoa iruditu zitzaien. Kontuan izan Espainian zer giro bizi genuen, gizaratean eta politikan: askok ez genuen ulertzen zergatik hainbeste aldaketa. Hori da bada, azkeneko hiru urte horien desastrea. Atzentzea hobe! Nahasita, galduta, zer egin ziurtasunik gabe.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



Miguel Maria Iriarte,

“Itsasoko maistrua”

Ikasketa berriak. Magisteritza

1970.ean magisteritza egitera joan nintzen. Han ere aldaketak, baina guk egin ahal izan genuen lehengo planarekin, plan zaharreko ikasketekin segi eta buka. Asignatura asko eginak genituela ziurtatu ziguten, eta falta zitzaizkigunak gure kabuz egin behar izan genituen. Ikasi, eta azterketak egitera *Escuela Normal de Magisterio* zeritzon ikastetxera joanez.

1972ko otsailean gairitu zuen galditzen zitzaion azken asignatura. Eta lanean hasi zen urrian.

Maisu, Irurtzunen eta Iruñerrian

Ikasketak bukatu eta lanera. Aise opatu zenuen lana?

Bai, ikasketak bukatu otsailean eta urrian hasi nintzen Irurtzunen. Garai hartan eta beranduago ere, herriek aukeratzen zituzten maisu-maistrak, eta ni Itsasokoa izatean aukera ona izan nuen eta

Irurtzuno herriak ni aukeratu ninduen eta horrela sartu nintzen. Urte hartan inauguratu zituzten eskola berriak, herriarendako bakarrik eginak, Elizatik goitixeago. Bitarte horretan hasiak ziren egiten beste eskola bat, orain duguna, eskualde guzira.

Zer moduz izan zen lehen ikasturtea. Zu lan honetan aritu gabea...

Oso-osoz pozik ibili nintzen, oso pozik! Irakasteaz landa, berokuntza edo kalefakzioa maisuek txandaka egiten zuten, eta nik neronek nire gain hartu nuen, egurrez serio hornitu behar zen estufa eta nire lan karga hori eramatea gustuko nuen.

Miguel Mariri tokatu Irurtzuno eskolako inaugurazioa! Ez zen azken eskola inauguratuko zuena!

Eta 1973an beste eskola batera (1973-1974ko ikastaroa)

1973an beste eskola batera. Oposaketak pasatu artean horrela ibiltzen

ginen eta horrela ibiltzen dira. Gora-behera batzuen ondoren, azaroan, Miserikordiatik deitu zidaten, gaxorik zegoen maisu baten ordekoa egiteko. Maisua Juan Lako, Agoizko semea, adinekoa, uzteko asmotan zebilela eta. Zuzendari Fernando Ariza Unanua Jaunak deitu zion irakasle berria etorri zela eta, Lako berarekin hitz egitera joateko agindu zion. Ohatzean zegoen eta ni ondoan bere galdera guziak erantzuten. Nire bizitza, formakuntza eta abarri buruz galdetu zidan. Ondoren Zuzendariari deitu zion, bera gaxorik zegoela klaseak ematen joateko eta ez zela sendatuko. Nire erantzunak gustatu zitzaizkion eta urte osorako, ekaina artiko jarraitzeko agindu zuen. Ustez hilabete baterako zena ikasturtea bukatu artikoa izan zen.

Miserikordiako eskolara familia arazotsuetako umeak joaten ziren eta hortaz, lana eta erakusteko metodoak ere zerbait diferentek ziren.





Eta ikasturtea bukatu, zure kontratua ere amaitu zen eskola berezi horretan eta hurrengo ikasturtean non izan zinen?

1974-1975 ikasturtea zen hori eta Burlatako udalak aukeratu ninduen. Eskola zaharretan izan nintzen,

nahiz ordurako eskola berriak egiten hasian izan.

Ikasturte horren bukaeran, 1975. urteko udan oposaketak izan ziren eta gainditu eta beste eskola batera joatea tokatu zitzaidan. Eta Irurtzunen eskatu nuen eta aukeratu

ninduten, baina oraindik ere probisionalki, 1975-1976 ikasturterako.

Eta horrela bukatu zituen Miguel Marik kanpoko ibilerak, eta hurrengo urtean, 1976ko irailean, Basaburua aldera joko zuen.

Hurrengo zenbakian segituko dugu




Seminarioan. Teologia ikasketak egiten, 22 urtetan. ▲

 Txurdan

- **Hiztegia**
- **Oparoa:** ona eta ugaria
- **Zeritzon:** deitzen zitzaion
- **Elocuentia:** latin hitza da. Hizketan trebetasuna. Etorria izateaz egin, ongi eta ederki mintzatea, elokuentziaz alegia
- **Galdeketa:** interrogatorio
- **Itxaronaldia=itxoinaldia:** espera
- **Ziurtatu:** certificar, egiaztatu
- **Gainditu:** pasatu, superar

- PSIKOTERAPIA
- ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA
- ARAZOAK KONPONTZERA BIDERATUTAKO TERAPIA LABUR ETA ESTRATEGIKOA



- PSICOTERAPIA
- ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA
- TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA ENFOCADA A SOLUCIÓN DE PROBLEMAS

luzkipsiko@hotmail.com

Ane Buitrón (N-02107)

637 18 60 27



Uda urdinak

Digestioa sakratua zen. Hil ala bizi-ko kontua. Arratsaldeko hiruretatik bostetara, igerilekua kristal garbi bat eta gardena zen, eta norbait bertara pulunpatzen bazen, mila puskatan apurtzen zuen zalapartaka, idatzi gabeko arau bat hausten edo Jaungoikoaren agindu bat zikintzen zuenak bezala.

Digestioa egin behar zen. Haien etsipenerako gurasoei "zenbat falta da?" galdetzen genien bost minuturo, hiltzeko arriskuan geunden bi ordu horietan. Ura ez zen ura, irakiten zegoen olio-putzu bat baizik. Eta


zerutik ere sua erortzen zen. Bizitza zuhaitzen edo parasolen itzalpean geldo igarotzen zen, lo kuluxka eta aharrausi artean. Aspertu beharra zegoen. Aspertzea derrigorrezkoa zen, sortzeko, zerbait asmatzeko, gero berriz jolasteko, aspertzeari uzteko. Gaurko haurrak, aldiz, ez dira aspertzen, ez dakite edo ez ditugu aspertzen uzten, beti izaten dute tablet bat eskura, kotsola bat, eskolaz kanpokoren bat, kanpamenturen bat... denbora falta zaie hainbeste estimulu digeritzeko.

Guri, aspertzen ginen bitartean, toallara edo Don Mikira igotzen ziren inurriak animalia fantastiko bihurtzen zitzaizkigun, edo bonbardatzaile, gure belarrietan burrunba egiten zuten euliak, behar ez genuen siesta egiten saiatzen ginen bitartean. Zenbat falta da? Batzuetan, itzala utzi eta eguzkiari gure azalean etorkizuneko orinak eta melanomak idazten uzten genizkion. Igerilekuaren ertzean esertzen ginen, eta nostalgikoki begiratzen genion hondoari, urrutiko herrialde edo garai galdu baten ortzi-mugari bezala. Igerileku olinpikoaren zorua mosaiko erromatar bat zen,

Atlantida bat, non pesetak edo arropa gordetzekoaren fitxak zeuden. Beste batzuetan, komunera joaten ginen, eta gero dutxatu egiten ginen, azken tanta salataria, bainujantzian estigma bat bezala zabaltzen zena, disimulatzeko.

— Aitor Menta, joan zaitez mese-
dez telefonora — txitxar barealdia
hausten zuen megafoniaz atezai-
nak, beste behin ere engainatua, eta
ume aspertu guztiak barrez leher-
tzen ginen.

Ibai ondoan ohe elastiko zahar bat zegoen, eta gogoan dut arratsalde batzuetan olanaren izkin batean esertzen nintzela, nire txandaren zain, eta iristen zitzaidanean pasatzen uzten nuela, bainujantzi speedoan ereizio nagia eta nahasi bat agertzen zitzaidalako, gustatzen zitzaidan neskatoa jauzika ikusten nuen bitartean. Zerutik jaisten ari zen aingeru bati bezala, begiratzen nizkion titiburu hasiberriak, sagu txikiak bezala bihotza urratzen zizkidatenak.





Uda amaigabe haiek hasperen batean pasatzen ziren. Eguzki odolduarekin batera hiltzen ginen gauero, eta goizero galleta *María* itxurako eguzki batek eta *colacao* igerileku batek berpiztu egiten gintuzten. Poetak esan zuen bezala, gizakiaren aberria bere haurtzaroa bada, uda izango da haren hiriburu. Uda urdin haiek ziren. BH bizikletak. Barboak eta loinak, aparailuz arrantzatuak. Txipi-txapak. *Frigodedoak* eta *Drakulak*. *Capitán Cola* eta "El Gran Héroe Americano". Verdad o atrevimiento. Olioia eta ozpina taper batean, batera baina ez nahasita. Bizitza digestio geldo eta elikagarri bihurtua. Zenbat falta da?

 Patxi Irurzun



Zorionak Zorionak !



Zorionak Roberto,
10 urte!



Emma Saiok, Auzakoak,
3 urte maiatzaren ban



Argi dagoena, ikusi

Espainolek eta frantsesek garbi izan duten kontua da, baina badirudi gu gure erokerian segitu nahi dugula dakienari ikasi gabe, uztarrian hezteko den idiko basa baino okerrago oraindik. Erraieran ezin sarturik gabiltza!

1857an hezkuntza nahi eta nahiezkoa zela proklamatu zuen Espainiako Gobernuak. Eta hara, *Moyano legea* bezala ezagun den horrek, zer dioen hizkuntzari buruz: “*La Gramática y Ortografía de la Academia Española serán **texto obligatorio** y **único** para estas materias en la enseñanza pública*” Hor euskara aukera bezala ere ez dator. Bakarra eta nahi eta nahiezkoa gaztelera. Jakina, askoz ere aspaldiagotik katalana, gailego eta gainerako “Espainiako” hizkuntza guziak heriotza zigorra beren gainean zuten. Orduan, irakaskuntza beharrezkotzat eta ezinbestekotzat ezartzean, aprobetxatu nahi izan zuten gure hizkuntzari zintzurra labankada batez mozteko. Euskarari, euskaldunoi ez esatearren.

Geroztik urte asko pasatu da, Lehen Errepublika, Errestaurazioa, Primo de Riveraren diktatura, Bigarren Errepublika, Frankismoa eta, az-

kenik, “Demokrazia” deitzen dutena. Demokrazia? Gauzek hobera egin omen dute. Bai? Barkatu, baina gure zintzuraren bila dabilta betikoak. Orduan, 1857an gurekin akabatzeko hizkuntza bakarra behar zen. Orain, berriz, bide beretik segitu nahi dute, baina hizkuntza baten ordeztu bi, nahi eta nahiezkoak: gaztelera eta ingelesa. Eta, hori bai, nahi bada, euskara. Euskara? Ahal bada gutxi gainera.

Beste bide batetik, beste taktika batekin, baina zepo berean harrapatu nahi gaituzte. Edo, hobeki esan, harrapatu gaituzte.

Hala ere, ni ez naiz sartuko, gaurkoan behintzat, ur handitan. Eta, beraz, aurreko artikulua hartatik, Monakotik gurera etorriz, hona zer zioen Jon Mirande paristarrak **1948an**, modernitatea euskal literaturara ekarri zuen euskal idazle handiak:

Kasu nahasteari!

Bertzalde, ez othe dira eskualdun haurrak goizegi hasten frantsesaren ikasten eskolako alkietan? Mintzaiarak osoki elgarri arrotz direlarik, etchekoenkin bat eta errientarekin bertze bat erabiliz, biak nahasten dituzte, biak achaletik ikasten eta errotik ez bat ez bertzea. Askotan ohartu naiz oraiko gazteak ez direla beren burasoak baino hainitz trebeago erdaratan, nahiz haur haurretatik ikasten hasia duten. Ezagutu izan dut Chuberoko mutiko gazte bat hiru mintzaireraz haur haurretatik ikasi zituena. Aita eskuaraz mintzatzen zitzaion, ama (naphartarra zelakotz) espaignolez, eta nola hirian bizi baitziren frantsesa zerabilan bertze guziekin. Hiru mintzairak baloreak mintzatzen zituen gazte gaztetatik, bainan goizegi ikasiak zituela-kotz, hiruak gaizki zerabiltzan. Edozoini loth zakiola, hiruretan arrotz iduri zuen.

HERRIA astekarian 1948. urteko ekainaren 10eko zenbakian

Ez zen nornahi gure Mirande, ez literaturan eta ez poliglota bezala ere. Badakizu zenbat hizkuntza ikasi zituen? Has gaitezen bat bestearen segidan jartzen: “hizkuntza zelta guziak, ingelesa, alemana, espainola, italiara, neerlandera, yiddisha, latina, greziarra eta abar luze bat” (Mikel Sotoren **MIRANDE herriminez, ezin-minez** liburu gaitzan, 39. orrialdean)

1948an Mirande handiak zekiena ez dugu kontutan hartu eta bide oker baino okerragoetarik gabiltza.

Kasu nahasteari! Nahasketa, hilgarria da. Gauza bakoitza bere lekuan eta bere tenorean! Euskal Herrian bizi gara! Euskaldunak gara! **Kasu!!!**



Jon Mirande Ayphassorho, gaztetan, Miguel Sotok idatzi liburu ederretik hartu fotografia

● ● Eklipse

Segurtasuna + Aholkuak

Zure burua
eta ingurunea
zaintzea hautu
bat da. Ongi
hautatu



+info
eklipsenafarroa.eus
@eclipse_navarra

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



2026/08/12



Norbera babestea

Eraman ura hidratatuta egoteko. Pertsona bakoitzeko gutxienez bi litro eramatea gomendatzen da.



Eklipsearen ondorengo joan-etorriak

Gera zaitez Pertseidak ikustera. Irteteko ordubete itxaroten baduzu, trafikoa nabarmen murriztuko da.



Mugikortasuna

Ez gelditu bide bazterrean eklipsea ikusteko. Debekatuta dago, eta istripua izateko arrisku handieneko egoera da.



Suteen prebentzioa

Saihestu baso-pistetatik ibiltzea, eta ez aparkatu landarediaren gainean.

NAVARRA

NAVARRA ✦ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Gurseko kontzentrazio-esparrura ahanzturaren aurkako bidaia

Joan den maiatzaren 23an, Basaburuko eta eskualdeko jendeak oroimen eta erresistentzia egun bat partekatu genuen, ahanzturaren eta faxismoaren aurrean. Goizean Jauntsarastik Mauletik oso gertu dagoen Gurseko kontzentrazio-esparrura irten ginen

Zuberoatik kilometro batzuk aurrerago, Pauerako bidean, begirada engainatzen duen harizti baten ondoan gelditu ginen. Ez da naturaren kapritxotik sortutako oihana; Frantziako administrazioak joan den mendearen erdialdean landatu zuen egur eta hosto gortina da. Zuhaitz konplizeak dira, beren itzalen azpian barnerratze-esparru baten zauri irekia eta lotsa lurperatzeko altxatuak.

Han egon zen, eta han dago oraindik Gurseko Esparrua. Gorrotoaren presaz altxatu zen 1939an, armen isiltasunaren eta diktadura latz eta krudel baten uztarriean Errepublikaren amaiera eta egun gutxira.

Bearneko txoko horretatik 60.000 arima baino gehiagok desfilatu zuten. Horietatik 25.000 Errepublikaren

harrotasun zauritua zeramaten, eta jendetza horren artean gure bailarekako aurpegiak ere zeuden.

Gursera egindako bidaia honetan konturatu ginen ez dela mapan dagoen leku bat bakarrik; kontzientziaren aldabera bat da. Iraganeko itzalak orainaldian berriro proiektatzen direla dirudien garai hauetan, gogoratzea ez da aukera bat, agindu moral bat baizik. Izugarrikeria kontatzeko betebeharra dugu. Askatasuna galtzeak eta diktaduraren pisuak zer esanahi duen kontatu behar diegu belaunaldi berriei.

Gurs bisitatzea isilarazi zituztenekin hitzordu huts bat egitea baino zerbait gehiago izan da. Eta egun beroa izan zen arren, erbesteratze haren hotza eta lur azpian ezkututzen saiatu ziren



historiaren pultsua sentitu genuen.

Basaburuko Ahaztuak elkartean argi bilatzaileak izaten jarraitzen dugu. 1936ko bidegabekeriaren aurka altxatu zirenen izenak eta bizitzak, amildegitik berreskuratzeko lanean ari gara. Gure herrietako oroitzapenak biltzen dituen lainoa uxatzeko ahaleginean, ahanzturak lurperatu nahi izan zuena gainazalera itzuliz.

Horregatik, taupada honen parte izatera gonbidatzen zaituztegu. Laguniezaguzue sutondoan entzundako istorioei hautsa kentzen, aitona-amonen xuxurlak berreskuratzen eta, zatika, oraindik ezkutuan dagoen gure nortasunaren mosaiko hori osatzen.





MUGAK ONARTZEAREN
**PLAZERAZ
GOZATU**

**Jaietan,
planik onena
errespetua
da beti**

#ErrespetuaDaPlana



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



NAVARRA ❖ **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Baratzea = aisialdia?

Azken urteetan udan inguruko zonalde batzuetan izan den ur eskasiaren dela eta, uraren kudeaketaren eta baratzea ulertzeko moduaren inguruan hainbat hausnarketa eta galdera bidali dizkigu Virginia Sarasa Erice muskiztarrek. Baratzearen onurak aldarrikatzeko ere aprobetxatu du tartea imoztarrek

Baratzea = aisialdia, horrela dago izendatuta Mendialdeko zenbait ordenantzatan. Gai honen inguruan hainbat hausnarketa partekatu nahi-ko nituzke:

'Hazkunde ekonomikoaren' eta kontsumismoaren superazelerazioaren belaunaldia da nirea, lurretik alden-
du den belaunaldia. Badirudi aurreko mendearen bigarren erdialdean jai-
o ginenok uste dugula inguru hurbileko
baliabideekin bizitzeko beharra gain-
ditua dugula, gure adinekoek egiten
zekitenetik aldentuz.

Gure aurrekoek modu artisauean eta
baliabide gutxirekin lortu behar izat-
en zutena erosteko aukera izan dugu
guk, askotan merke gainera. Beste
artikulu baterako ematen du hain
merke nola ekoizten den azaltzeak,
nork eta zergatik egiten duen lan
hain prezio baxuan, eta ingurumena
ze kostu ari den ordaintzen trukean.

Errealitatea da gure herrietan aisial-
di eta ongizateari begirako erabilera
partikularrerako, eta batzuetan era-
bilera turistikorako, geroz eta lursail
gehiago erabiltzen direla. Horrekin
batera, udako agorraldi garaian ur
hornikuntza ziurtatuta eduki gabe ige-
rilekuak betetzeko lizentziak ematen
dituzte zenbait udalek. Modu indibi-
dual nahiz kolektiboan ura aurrezteko
eta pilatzeko baliabideak ez dira bul-
tztatzen eta ezartzen, eta aldi berean,
bereziki udan, ur eskaria handitzen
ari da.

Hasierara itzuliz, ez dut baratze batek
apaingarri gisa nahiz aisialdian izan

dezakeen balio erantsia ukatuko duen
pertsona, ezta duen balio soziala eta
osasunaren aldekoa ukatuko duena
ere. Hain zuzen, onura horien guztien
bultzatzaile eta defendatzaile naiz.
Behin hori argi utzita, uste dut per-
tsona batzuk baratzea 'arima elika-
tzeko', lurrarekin konektatzeko eta
edertasuna sortzeko erabiltzen ba-
dugu ere, horrek ez duela esan nahi
baratzearen balio nagusia aisialdiari
begirakoa denik.

“
**Ura aurrezteko
eta pilatzeko
baliabideak ez
dira bultzatzen**
”





Baratzeari lotutako jakinduria eta tradizioa (baita jakinduria linguistikoa ere) 'galzori arriskuan dagoen ondasun inmateriala' da ez badiogu norberaren elikagaiak ekoizteari duen balioa ematen.

Egoera globalak menpekotasun geroz eta handiagora joateko norabidea hartu duela dirudi, denean: elikaduran, osasungintzan, sendagaietan... guztia enpresa gutxi bazuen eskuetan utziz. Nahiago nuke egoera horretara iritsiko ez bagina, baina haien esklabu izatera iritsi gitezke. Elikaduraren autosufizientzia globalaren kontrako egoerara, hain zuzen.

Zer gertatuko litzateke etorkizun hurbil batean lehen landatzen eta ekoizten genuen hori guztia erosteko aukerarik izanen ez bagenu? Zer eginen genuke erregaien eta energia elektrikoaren eskasiagatik edo beste arrazoiren bategatik oinarritzko elikagaiak erosteko aukerarik izanen ez bagenu?

Ondorengo belaunaldiengatik, ez genuke nekazaritzarekin izan dugun lotura galtzen utzi behar. Ondorengoei pasatzeko ondare ederra izan behar luke lotura horrek, gure arbasoek zekitena eta jakintza berriak praktikan jartzeko lursail zati bat lantzen duenarentzat.

Familia-baratzea ez da aisialdia, oinarritzko zerbitzua da, elikagaiak lortzea ahalbidetzen eta oligopolioen menpekotasun erabatekotik zerbait askatzeko aukera ematen duelako. Sendagaien urgentziatzko botikina ere bada, sendabelarrak lantzen eta erabiltzen jakinez gero.

Independentziarako eta autosufizientziarako helburu horretan, hazien sareen lana goraiatu nahiko nuke, bertako espezie eta barietateen altxorra babesten dutelako eta haien lanak babes berezia merezi duelako.



Virginia Sarasa Erice

“ Baratzeari lotutako jakinduria eta tradizioa galzori arriskuan dago ”



Pulunpeko zozketan saria doanik ematen duten ostatuak

Eskualdeko ostatu askok doanik eskaintzen dute saria eta hori izugarritzko laguntza da guretzako. Apurka-apurka aterako ditugu guztiak.



Aitona jatetxea:
San Lorenzo Kalea
31799 Gerendiain
Ultzama, Nafarroa
948 30 54 11 - 669 39 62 01
restaurantesidreriaaitona.com



Berueteko ostatua:
San Juan Bautista Kalea, 66
31866 Beruete
Basaburua, Nafarroa
948 50 30 12



Hotel & Spa El Mirador De Ulzama
La Asuncion Kalea 31799 Urritzola-Galain
Ultzama, Nafarroa
948 32 07 38
info@elmiradordeulzama.com



pulunpe

Amazabal Institutuarekin elkarlana. Ekintzaitza, Ekonomia Soziala eta Negozioen erreleboa

Cederna Garalur eta Mimukaitik lau urte daramatzagu Amazabal Institutuarekin lankidetzan ekintzaitza kultura sustatzeko. Aurten lankidetzan indartu dugu, eta DBH2 eta 1. batxilergoko ikasleekin hainbat saio egin ditugu, ekintzaileen esperientziak zuzenean partekatzeko eta ikasleek aurrez prestatu dituzten galderak egiteko aukera emateko

POPP ikasleekin, Iñaki Zabaleta, Leitzako arotza, eta Jabier Saralegi, Araitzko abeltzaina, izan ditugu. Institutuan bertan egin dugun saio honetan, ikasleek enpresa txiki baten eguneroko lana eta erronkak lehen eskutik ezagutu dituzte. Ekonomiako ikasleekin, Itxaro Zabaleta nutrizionista eta Sara Crisostomo ostalariaren esperientziak partekatu ditugu.

Ekonomia Soziala eta negozioen erreleboa ere landu dira 1. Batxiler-

goko ikasleekin, Mimukain egindako goiz osoko saio batean. Kooperatibismoa eta burujabetzen ikuspegia landu dira, gure herrietako negozioen garrantziaz eta haien erreleboak dakarren erronkaz modu dinamikoan hausnartzeko.

Azkenik, ikasleek landutako aldizkariaren aurkezpenak entzuteko aukera izan dugu, Goizueta, Lekunberri eta Leitzako ekimenak ezagutzuz. Saio hauek guretzat oso aberasgarriak izan dira, eta ikaslee-

kin esperientziak partekatzeko beti inspiragarria da.

Hurrengo ikasturteetarako Cederna Garalur eta Amazabal Institutuaren arteko lankidetzan sendotzea eta egonkortzea dugu helburu, gure eskualdeko gazteekin lanketa aktiboa garatuz, eta beren sormena eta ekintzaitza gaitasunak lur eman korrean hazi daitezela sustatuz.





deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA



2026ko apirila

2026ko apirilean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

ULTZAMA Arraitz

Izei Leon Izko, Arkaitz eta Onintzaren semea, maiatzaren 20an sortu zen.



▲ Izei etorri zaigu familia handitzera

Eltso

Claudia Mugica Iraizoz, Ion eta Mariaren alaba, maiatzaren 17an sortu zen, **Peru-txenean (Xarrajero)**

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak:

Inor ezkondu denik ez dugu jakin izan.

Heriotzak:

Inor hil denik ez dugu jakin izan.

Nor falta da hemen?

Etorri behar zutenak ez dira etorri

Euskaldunak gutxitzen ari gara. **Izua ematen du.** Benetan izugarria da. Eta ez gara bakarrak. Lehengo egun batean irakurtzen nuen nola Europako hamahiru herrialdeetan jendeak ihes egiten duen. Purrustan beren herrietatik ihesi. Hamahiru horietan, jende gehienik galdu duena Errumania omen. 4.000.000 lagun atzerrira joan omen da.

Errumanian hola, Italian hala eta Portugalen ez dakit nola. Eta gure Euskal Herrian?

Hau irakurtzean gogora datorkit nola garai batean, 1960ko hamarkadan edo, herritto baztertu batera iristeko zen gurdibidearen orde ez errepide bat egin zioten. Hurrengo hiru urteetan bertan bizi zen jende guziak zituen ondasun pixkak hartu eta alde egin zuen hirira. Onerako behar zuena kalterako gertatu zitzaion. Horrela gertatu da European ere, azpiegitura nasaiki, baina jendearen arazoei kasurik ez. *Dirua galgarri*, esana den bezala.

Herri eta eskualde zabalak basamortu edo turista leku bihurtu dituzte Europako agintari eta oligarkek. Harritzekoa ere ez da, Palestinan genozidio bat begi aurrean eta deus egin ez duten putreak baitira.

Aipatu dugun egoera hori larria izanik, zertan gara hemen? Hobeiki ote gara? Bai? Agian. Ustez. Bai, ustez beharko dugu, entzuten

ditugun kontuak ez dira batera xamurrak: jaiotze tasak behera etengabe, gizartearen zahartzea ziztu bizian, jende prestatuen erbesteratzea... eta ikusten ez? Datu gehiago behar? Horra hor eskola ttikien hertsitzeak ikasle faltaz, pilotalekuen isiltasuna eta herrien bakardadea!

Jaiotze tasa eskasaz hizketan, ama gazte bati entzun nion ez asko: *Aizu, jendeak ez du umerik izan nahi!*

Eta horrela ari gara pobretzen, bakartzen, husten, hiltzen...

Heriotzaren aurrean aski ez dirudienez, eta guretako jende bat hor ariko zaizu predikatzen eta pontifikatzen:

-Zertarako umeak?

-Zertarako ezkondu?

-Zertarako lana?

-Ni ongi, besteak hor kopon!

Eta egin beharrekoa ez al da egin behar?

Baleki jende horrek zenbateko maitasuna, errespetua eta miresmena diegun, isilik geldituko litzateke. Gu isilik eta horiek lotsagabe ari dira, ez baitute lotsarik.

Hurrengo batean ahoak hertsitzeko numeroak ekarriko ditugu.



Txurdan



Ametzaren txokoa

Egin zaitez bazkide!

Ametza Kultur Elkarteko bazkide izatera animatu nahi zaituztegu urte hasiera honetan. Horretarako, gure helbidera idatzi behar duzue, ametzake@gmail.com, datu hauek emanez:

- Izen-abizenak:
- Helbide elektronikoa:
- Helbidea, herria eta posta kodea:
- NAN zenbakia:
- Telefono zenbakia:
- 20 digituko banku-kontua



Urtean 50 euroko kuota bakarra izaten da, ekainean pasatzen duguna. Gai-nera, gure elkartearen Nafarroako Gobernuaren mezenasgo legearen barne dagoenez, errenta aitortzearen ekarpenaren %80 arte itzultzen dute, alegia, 50 eurotik 40.

Bazkideen laguntzaren beharrean dago gure elkartearen antolakuntzari begira eta ekimen berriak eta betikoak aurrera eramateko. Animo, eta eskerrik asko!

ametzake@gmail.com 

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



pulunpe

amezti

Esan Erran irratia udako deskantsua hartuko du ekainaren 19tik aurrera... baina laasai, ikasturteko kolaborazio, irratsaio eta podcastak entzungai dituzue **amezti.eus/irratia** estekan! Irailaren 14an bueltatuko gara Egun Ero magazinarekin!

